

txoritxoari mokoka

Amagoia Iban

Taxistaren jakituria

Igande gaua taberna batean. Arras-Dakar rallyko azken berriak. Urliak arazoak izan dituela motorrarekin. Sandiak beste hainbeste. Berendia hizketan, sailkapenean duen postua gorde nahian. Basamortuko biztanleak, begirada zehaztezinez karabana zaratsatu eta ketsuari begira. Barrenak nahasten dizkidan urteroko irudia. «Motorra erreko balitzaie mendebaldar hantuste denei! Iraingarria da». Kafesneari azukrea bota bitartean hitz egin du aldameneko gizonak. Adinean aurrera doa. Ta-



PATRICK HERTZOG / EPA

Arras-Dakar rallyko irudi bat.

xista omen da. Esan gabe doa ez dituela halako rallyak maite. Neuk ere ez, eta tankera hartu didalakoa nago. «Abentura deitzen diote, baina besteren lepotik bizitako pozari nik ez diot horrela deitzen. Inoiz jakin al duzu bertakoek zer dioten lasterketa horri buruz?». Ezin letra txikitik noizbait irakurritako berri laburren bat besterik erantzun. Kafesnea bukatzen ari gara biok, eta telebistako erreportaia ere amaitzean da. «Erotuta gaude. Egune-ro errepidean ni bezala ibiliko bazina ederki asko jakingo zenuke. Eta gure eromena esportatzeko irrika ikaragarria daukagu». Lanera itzuli aurretik, biona ordaindu du taxistak. Beste rally bat arte, bai.

A3



EGUNKARIA

Jordi Gonzalez.

Telesail bat eta magazin bat estreinatuko dituzte gaur gauean

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Bi saio berri estreinatuko ditu gaur A3 kate pribatuak. 22:00etan *Un paso adelante* telesailaren lehenengo atala emango dute. Globomedia ekoiztetxearen lan horretan arte eszenikoen eskola bateko gorabeherak kontatzen dira (*Fame* telesailan oinarritutako argumentuarekin). Aktoreen artean Lola Herrera, Jaime Blanch, Beatriz Rico, Natalia Millan eta Pedro Peña daude. Penelope Cruzen ahizpak, Monica Cruzek, bere debuta egingo du telebistan.

Gauerdian, bestalde, *Abierto al anochece* izeneko magazina estreinatuko dute gaur. Jordi Gonzalez izango da aurkezlea eta astero bi orduz pertsonaia ezagunak gonbidatuko ditu platora. Elkarriketatu bakoitzaren aldamenean, pertsonaiaren ibilbidea jarraitu duten kazetariak egongo dira. Horretaz gain, sexuak bere tarte izango du *late night* honetan, erotismo ikuskizunekin eta ezohiko esperientzien kontaketekin.

ETB1. Ikusle gehiago bereganatzeko asmoz orduz aldatu dute Baionatik eginiko magazina

'Iparraldearen orena' iluntzean



Guillaume Irigoien eta Ima Alvarez EITBko Baionako egoitzako kazetariak.

Bi hilabeteko proba gisa 20:25ean emango dute saioa astelehenetik ostiralera

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

1992ko urrian hasi zuen bere ibilbidea ETB1 katean *Iparraldearen orena* albistegi laburrak, Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko aktualitatearen berri emateko. Urteotan eguerdian eman izan dute saioa baina atzotik 20:25ean ikusteko aukera dago. Aldaketaren funtsaz hitz egin du EGUNKARIAK *Iparraldearen orena*-ko aurkezle Guillaume Irigoienekin. «Bi hilabeteko proba egingo dugu ordutegi berriarekin. Orain arte egunaren erdian izaten zen *Iparraldearen orena* (12:55ean le-

hen eta 13:25ean irailaz geroztik). Ez zen egokia ordu hori ez Iparraldeko ez Hegoaldeko ikusleentzat. Aktualitatea egun erdikoa zen, baina askoz interesgarriagoa egun osokoa ematea da» dio kazetari baxenabartarrak.

Irigoien: «Hegoaldetik orain jende gehiagok ikusiko gaitu»

Aldaketaren oso pozik daudela dio Irigoienek. «Iparraldeko jendea despistatua zen 12:55etik 13:25erako aldaketarekin. Eta honakoa ordu ona da guztientzat. Hegoaldetik ere

jende gehiagok ikusten ahalko dute zer nola bizi den Iparraldean». Albistegiaren iraupena, berriz, laburtu egingen da bi minutuz, zazpi minututik bostera jaitsiz.

Agustin Errotabehere eta Guillaume Irigoien dira *Iparraldearen orena* saioko kazetariak eta EITBk Baionan duen delegazioko hirugarren kazetaria (Ima Alvarez) EITBko albistegiatarako aritzen da bereziki. Iazko apiriletik egoitza berria du EITBk Lapurdiko hiriburuko Merkataritza Ganberan, telebista plato bat, irudiak grabatzeko bi gela eta lurretako emisio zentroarekin lotura zuzena konexioetarako. Lehen baino hobeto daudela adierazi du Irigoienek. «Aldaketa nabaritzen da, teknikoki, esaterako, hobe-

EUSKAL MEDIA AGENTZIA

Duela urtebete martxan jarritako enpresa

Iparraldearen orena albistegia Euskal Media ikus-entzunezko agentziaren produktuetako bat da. Izan ere, EITBren Baionako egoitzan enpresa baten moduan funtzionatzen dute. Aitor Arandia da Euskal Mediako kudeatzailea. «Comedia erakunde eta Herrikoa enpresaren artean sortutako enpresa da gurea. Urtebete eta hiru hilabete pasa dira jaio zela eta orain arte bereziki EITBrako aritzen gara. Frantziako eta beste herrialde batzuetako telebista kateentzat erreportaiak ere egiten ditugu» dio Arandiak. Aurrera begira Akitaniako hegoaldean erreportaiak egitera joan daitezkeela azaldu dio EGUNKARIARI Euskal Mediako buruak. «Heldu den hilabeteetan lan komertziala egin behar dugu agentzia Frantziako telebista kateei aurkezteko, nahiz eta aurrez lan batzuk saldu dizkiegun» dio Arandiak.

kuntzak izan ditugu. EITBko langileak elkarrekin egoteak dinamika bat sortzen du, nahiz eta bakoitzak bere eginkizuna izan. Azken finean, egiten duzun produktuak definitzen du zure lana. Aberatsagoa da guztiak elkarrekin izatea».

Iparraldearen orena-k datozen bi hilabeteotan behar beste ikusle erakartzen baldin badu, iluntzean eman dioten ordutegian jarraituko du. Aldaketa langileentzat eta ikusleentzat egokia izango den itxaropena dute ETBn.